c) Aurkezteko tokia eta argibideak:
— Erakundea: Kontratazio Zuzendaritza.
— Helbidea: Venezuela pl., 2, 5. solairua.
— Herria eta posta-kodea: 48001 Bilbao.
— Telefonoak: 944 204 594 eta 944 204 611.

d) Lehiatzaileak bere eskaintzari nahitaez eutsi beharreko epea: Bi hilabete.

e) Aldakien onarpena: Ez.

*9. Eskaintzak irekitzea:*

a) Erakundea: Kontratazio Mahaia.
b) Helbidea: Venezuela pl., 2, 1. solairua.
c) Herria: Bilbao.
d) Eguna: Udal web gunearen kontratatzailearen profilean adierazten den eguna.
e) Ordua: 08:30etan.

*10. Bestelako argibideak:*

Esleitzeko irizpideak administrazio-baldintza berezi daude adierazita.

*11. Iragarki-gastuak:*

Ez.

*12. Iragarkia Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialera bidaltze-eguna:*

Ez.

*13. Kontratuagile profila:*

Www.bilbao.eus / Kontratugile profila - Administrazio kontratuak.

Bilboko Udaletxean, 2016ko uztailaren 13an.—Kontratazioko Zuzendaria

(II-3301)

c) Lugar de presentación e información:
— Entidad: Dirección de Contratación.
— Domicilio: Plaza de Venezuela, n.º 2, 5.ª planta.
— Localidad y código postal: 48001 Bilbao.
— Teléfonos: 944 204 594 y 944 204 611.

d) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: Dos meses.

e) Admisión de variantes: No.

*9. Apertura de las ofertas:*

a) Entidad: Mesa de Contratación.
b) Domicilio: Plaza Venezuela, n.º 2, 1.ª planta.
c) Localidad: Bilbao.
d) Fecha: El día que se señale en el perfil de contratante de la web municipal.
e) Hora: 8:30 h.

*10. Otras informaciones:*

Los criterios de adjudicación figuran en los pliegos de cláusulas administrativas.

*11. Gastos de anuncios:*

No.

*12. Fecha de envío del anuncio al Diario Oficial de las Comunidades Europeas:*

No.

*13. Perfil de contratante:*

Www.bilbao.eus / perfil de contratante - contratos de la Administración.

En las Casas Consistoriales de Bilbao, a 13 de julio de 2016.—La Directora de Contratación

(II-3301)

•

**Behin betiko onartzea Uri Zaharraren Berregokipenerako Plan Bereziaren aldaketa (Espedientea 2015-041536).**

Udalbatzarrak 2016ko ekainaren 30ean egindako batzarraldian erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

«1. Behin betiko onartzea Uri Zaharraren Berregokipenerako Plan Bereziaren aldaketa. Hain zuzen ere, hirigintza-erabilera batzuetan beste erregimen bat ezarriko da, besteak beste ostalaritza, zonifikazio berria ezarriz eta horren araupenean aldaketa egokiak eginez, batez ere Hirigintza Arauen I. Kapituluan, Sailak egindako testuarekin bat etorrita, hasieran onartutako proiektuari aurkeztutako alegazioak zati batean onartzearen ondorioz.

2. Arautegi berria Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta udalaren webgunean sartzea.

3. Erabakia jakinaraztea eta aldez aurreko txostena eta arautegi berria bidaltzea SURBISAri, Lehiaren Euskal Agintaritzari, 5. Barrutiko Kontseiluari eta espedientean agertu direnei.

4. Hori guztia Saileko zuzendariordeei jakinaraztea.»

AURKABIDEAK

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako, hilabete biko epea izango da, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasita, halaxe ezartzen baitu Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko 29/98 Legearen 46. artikuluak. Hala ere, beste edozein aurkabide erabili ahal izango da, egoki irizten bazaio.

**Aprobar definitivamente la modificación del Plan Especial de Rehabilitación del Casco Viejo (Expediente 2015-041536).**

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada con fecha 30 de junio de 2016, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

«1.º Aprobar definitivamente la modificación del Plan Especial de Rehabilitación del Casco Viejo, consistente en establecer un nuevo régimen de algunos usos urbanísticos, entre ellos el de hostelería, mediante el establecimiento de una nueva zonificación y la introducción de los oportunos cambios en su regulación, sobre todo, en el Capítulo I de sus Normas Urbanísticas, conforme al texto elaborado por dicha Área, como resultado de la aceptación parcial de las alegaciones presentadas sobre el proyecto aprobado inicialmente en su día.

2.º Publicar la nueva normativa en el “Boletín Oficial de Bizkaia” e incluirla, asimismo, en la página web municipal.

3.º Notificar el acuerdo, junto con el informe precedente y la nueva normativa a SURBISA, a la Autoridad Vasca de la Competencia, al Consejo de Distrito 5, así como a quienes se han personado en el expediente.

4.º Poner todo ello en conocimiento de las Subdirecciones del Área.»

MEDIOS DE IMPUGNACIÓN

Contra la resolución que se le notifica, que es definitiva en vía administrativa, podrá Interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación conforme al artículo 46 de la Ley 29/98, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa; todo ello sin perjuicio de que pueda utilizar cualquier otra vía de impugnación, si lo estima oportuno.

cve: BAO-BOB-2016a137

ONARTUTAKO ARAUTEGIA

I. KAPITULUA

**ERABILERAK**

**1. artikulua.—*Erabileren sailkapena***

1. Lurzoruen erabilerak kategoria hauetan sailkatuta daude:

1.a) Erabilera baimenduak.

1.b) Erabilera debekatuak.

1.c) Toleratuak.

1.d) Aldi baterako erabilera.

1.e) Behin-behineko erabilera.

2. Lurzoruaren zein hura barne hartzen duen instalazioaren edo eraikuntzaren jabetza-araubidearen arabera, erabilerak honela banatuta daude:

— Jabetza publikoko erabilerak:

2.a) Espazio publikoko erabilera.

2.b) Administrazioaren erabilera.

— Jabetza ez-publikoko erabilerak.—A.— Jabetza edo funtzio komunitarioko erabilerak:

2.c) Sarbide publikoko erabilera.

2.d) Jabetza publikoaren gaineko administrazio-erabilera.

2.e) Erakunde-erabilera.

2.f) Elkarte-erabilera.

2.g) Erabilera kolektiboa.

2.h) Zerbitzu-erabilera.

— Jabetza ez-publikoko erabilera.—B.— Erabilera pribatizatua:

2.i) Bizitegi-erabilera.

2.j) Merkataritza-erabilera.

2.k) Bulego-erabilera.

2.l) Lantegi-erabilera.

3. Erabilera eraikin batean oinarritu beharraren oinarrizko ezaugarria duen ala ez duen kontuan hartuta, erabilerak bi taldetan sailkatuta daude:

3.a) Eraikuntzan edo instalazioan oinarritutako erabilerak.

3.b) Eraikuntzarik gabeko erabilerak.

**2. artikulua.—*Erabilera baimenduak***

1. Erabilera baimenduak dira araudi honetan zona bakoitzerako baimendutakoak, edo erabilerok hartzen dituen eraikinaren barruan daukaten kokapenaren arabera era xehatuan baimentzen direnak.

2. Zona bakoitzerako baimentze-irizpideak hiri-ingurunearen zein ingurumenaren babesaren arabera ezarriko dira, eta, horretarako, gogaikarriak izan daitezkeen jarduerak era desegokian kontzentratzea saihestuko da, eta erabileren dibertsifikazio egokia lortzen saiatuko da.

**3. artikulua.—*Erabilera debekatuak***

1. Erabilera debekatuak dira araudi honetan berariaz debekatuta daudenak eta segurtasunaren, osasungarritasunaren, ordena publikoaren eta lasaitasunaren alorrean promulgatutako xedapen orokorretan halakotzat ezarrita daudenak.

2. Erabilera debekatutzat jotzen dira, halaber, araudi honetan erabilera baimendutzat berariaz jasota ez daudenak.

**4. artikulua.—*Erabilera toleratuak***

Erabilera toleratuak dira, araudi honen aurreko hirigintza-egoera batetik datozelarik, erabilera baimenduen artean ez dauden arren edo, erabilera horien artean egonik ere, kokatuta dauden lurzoruei ez dagozkien arren, aldi baterako bateragarriak direnak, dela uneko egoeran, dela erabileraren intentsitatean eta moduan beharrezko murrizketak ezarririk. Epe jakin batean toleratuko dira, eta hura igarotakoan, desagertuz joan beharko dute.

NORMATIVA APROBADA

CAPÍTULO I

**USOS**

**Artículo 1.—*Clasificación de los usos***

1. Los usos de los suelos se clasifican en las siguientes categorías:

1.a) Usos permitidos.

1.b) Usos prohibidos.

1.c) Usos tolerados.

1.d) Usos temporales.

1.e) Usos provisionales.

2. Según el régimen de propiedad tanto del suelo como de la instalación o edificación que lo alberga, se dividen los usos en:

— Usos de Propiedad pública:

2.a) Uso de espacio público.

2.b) Uso de la administración.

— Usos de propiedad no pública. —A.— Usos de propiedad o función comunitaria:

2.c) Uso de acceso público.

2.d) Uso administrativo sobre propiedad privada.

2.e) Uso institucional.

2.f) Uso asociativo.

2.g) Uso colectivo.

2.h) Uso de servicios.

— Usos de propiedad no pública.—B.—Uso privatizado:

2.i) Uso residencial.

2.j) Uso de comercio.

2.k) Uso de oficina.

2.l) Uso de taller.

3. Según la característica básica de un uso de desarrollarse o no, sustentado en un edifico, se clasifican en dos grupos:

3.a) Usos sustentados en edificación o instalación.

3.b) Usos libres de edificación.

**Artículo 2.—*Usos permitidos***

1. Son aquéllos que se autorizan en la presente normativa para cada zona, o pormenorizadamente en función de su emplazamiento dentro del edificio que los alberga.

2. Los criterios de autorización para cada zona se fijarán en función de la protección del entorno urbano y del medio ambiente, tratando de evitar para ello la concentración inadecuada de actividades potencialmente molestas, así como de conseguir una adecuada diversificación de usos.

**Artículo 3.—*Usos prohibidos***

1. Son usos prohibidos, aquéllos que lo estén expresamente por estas normas y aquéllos que así lo indiquen las disposiciones generales promulgadas en materia de seguridad, salubridad, orden público y tranquilidad.

2. Se consideran también prohibidos, aquellos usos que no estén expresamente relacionados como permitidos por las presentes Normas.

**Artículo 4.—*Usos tolerados***

Son usos tolerados, aquéllos que proviniendo de una situación urbanística anterior a esta Normativa, no se encuentren relacionados entre los permitidos, o que estándolo no corresponden a los suelos sobre los que se asientan, siendo no obstante compatibles temporalmente, bien en su estado actual o con las restricciones precisas en la intensidad o forma del uso. Se tolerarán por cierto período de tiempo, pasado el cual deberán tender a su desaparición.

cve: BAO-BOB-2016a137

**5. artikulua.—*Aldi baterako erabilerak***

Aldi baterako erabilerak dira epe mugatu baterako ezarritakoak, administrazio-emakida bat dela bide, edo azalera-eskubideen aldi baterako lagapen bat dela bide.

**6. artikulua.—*Behin-behineko erabilerak***

Behin-behineko erabilerak dira, obra edo instalazio iraunkorrik behar ez dutela-eta, behin-behinean baimendu daitekeenak.

**7. artikulua.—*Espazio publikoko erabilera***

Espazio publikoko erabilerak dira, arau hauen ondorioetarako, erabilera eta jabari publikoko lurzoruetan gauzatzen direnak, eta, halaber, eraikuntzan oinarritzen ez diren jarduerei dagozkienak.

**8. artikulua.—*Administrazioaren erabilera***

Administrazioaren erabilerak dira, herritarrek bizitza sozialaren ondorioz dituzten beharrizanak betetzeko helburuz, lurralde-administrazioak edo erakunde-administrazioak bere titulartasuneko eraikuntza eta instalazioetan gauzatzen dituen jarduerei dagozkienak.

**9. artikulua.—*Sarbide publikoko erabilera***

1. Atal honetan sartzen dira, araudi honen arabera jabetza pribatuko eremuetan dauden arren, araudiak berak berariaz bide-publikoko zortasunak edo lurpearen, lurzoruaren edo hegalen erabilera publikoa ezartzen dien espazioak.

2. Espazio hauek segurtasunaren eta apaintasunaren aldetik behar bezalako egoeran mantentzea jabeen gain egongo da.

**10. artikulua.—*Jabetza publikoaren gaineko administrazio-erabilera***

Erabilera hauek eraikin edo instalazio pribatuetan gauzatzen diren «Administrazioaren erabilera» atalekoak dira, alokairuan edo beste edozein okupazio-tituluren bidez.

**11. artikulua.—*Erakunde-erabilera***

Erabilera hauek erlijio-institutuek, alderdi politikoek, sindikatuek eta —barneko antolaketa eta funtzionamenduari dagokienez, bederen— jarduerak administrazio-zuzenbideari loturik dauzkaten erakundeek gauzatutakoak dira.

**12. artikulua.—*Elkarte-erabilera***

Erabilera hauek elkarte, komunitate, sozietate, klub edo antolakunde bateko kide izatean —eta ez herritar-eskubide hutsean— oinarritzen den giza talde batek gauzatutakoak dira.

**13. artikulua.—*Erabilera kolektiboa***

Erabilera hauek sarbidea izateko —bai erabileretan bertan, bai eraikin eta instalazioetan— jendeari oro har eskaintzen zaion sarrera bat edo antzeko ordain bat abonatu beharrekoak dira.

**14. artikulua.—*Zerbitzu-erabilera***

Erabilera hauek energia-banaketaren, komunikazioen, automobil-parkearentzako mantentze-lan eta aparkalekuen, jendaurreko merkataritza-jardueren alorrekoak nahiz araudi honi dagozkion agirietan halakotzat izendatutakoak dira.

**15. artikulua.—*Erabilera pribatizatua***

Erabilera pribatizatuaren kategoriakoak dira, jabetza publikoko erabileren eta jabetza edo funtzio komunitarioko erabileren atalen barruan egon gabe, aprobetxamendu pribatukoak izan daitezkeen orubeetan partikularren jarduera gauzatzekoak. Araudi honetan, erabilera hauek baimentzen dira erabilera pribatizatuen kategorian:

— Bizitegi-erabilera.

— Merkataritza eta hirugarren sektoreko zerbitzuko erabilera.

**Artículo 5.—*Usos temporales***

Son usos temporales los establecidos por un plazo limitado en función de una concesión administrativa, o de una cesión temporal de derechos de superficie.

**Artículo 6.—*Usos provisionales***

Son usos provisionales los que por no precisar obras o instalaciones permanentes, pueden autorizarse con carácter provisional.

**Artículo 7.—*Uso de espacio público***

Son usos de espacio público a los efectos de estas normas los que se desarrollan sobre suelos de uso y dominio público y corresponda a actividades no sustentadas en edificación.

**Artículo 8.—*Uso de administración***

Son usos de la Administración los referentes a las actividades destinadas a cubrir las necesidades de la población derivadas de la vida social, desarrolladas por la Administración, Territorial o Institucional en edificaciones e instalaciones cuya titularidad ostente.

**Artículo 9.—*Uso de acceso público***

1. Se incluyen en este apartado, aquellos espacios que, estando por la presente normativa incluidos en las áreas de propiedad privada, la propia normativa les impone de manera expresa servidumbres de paso público o utilización pública de su subsuelo, suelo o vuelo.

2. El mantenimiento de las mismas, en las debidas condiciones de seguridad y ornato, correrá a cargo de sus propietarios.

**Artículo 10.—*Uso administrativo sobre propiedad privada***

Corresponden a los usos del apartado «Uso de la administración» que se desarrollan en edificios o instalaciones de propiedad privada, mediante arrendamiento o cualquier otro título de ocupación.

**Artículo 11.—*Uso institucional***

Corresponde a los usos desarrollados por institutos religiosos, partidos políticos, sedes sindicales y todas aquellas instituciones cuyas actividades estén sujetas, al menos en cuanto a su organización y funcionamiento interno al derecho administrativo.

**Artículo 12.—*Uso asociativo***

Corresponde a aquellos usos desarrollados por un grupo humano al que se accede, no por un mero derecho de ciudadanía, sino por la pertenencia a una asociación, comunidad, sociedad, club u organización.

**Artículo 13.—*Uso colectivo***

Corresponde a aquellos usos, en los que el acceso a los mismos y a sus edificios e instalaciones, se realiza mediante el abono de una entrada o contraprestación análoga, ofrecida al público en general.

**Artículo 14.—*Uso de servicios***

Corresponde a los usos relativos a la distribución de energía, a las comunicaciones, al mantenimiento y estacionamiento del parque automovilístico, a las actividades comerciales públicas y a los que así se les denomine en los documentos correspondientes a la presente normativa.

**Artículo 15.—*Uso privatizado***

Corresponden a la categoría de uso privatizado aquellos usos que no estando contenidos en los apartados de usos de propiedad pública y usos de propiedad o función comunitaria, están dedicados al desarrollo de la actividad de los particulares en solares susceptibles de aprovechamiento privado. La presente normativa autoriza con la categoría de privatizados los siguientes usos:

— Uso residencial.

— Uso comercial y servicios terciarios.

cve: BAO-BOB-2016a137

— Lantegi eta industria txikiko erabilera.

— Espazio libreko erabilera. Jabetza pribatuko lurzoruan gauzatzen diren eta eraikuntzan oinarritzen ez diren jarduerei dagozkien erabilerak barne hartzen ditu.

**16. artikulua.—*Eraikuntza edo instalazioan oinarrituriko erabilerak eta eraikuntzarik gabeko erabilerak***

1. Eraikuntzan edo instalazioan kokatu ahalko diren erabilerak hauek dira:

— Bizitegi-erabilera (etxebizitza, hotel-apartamentuak…).

— Ostatu-erabilera.

— Merkataritza eta hirugarren sektoreko zerbitzuko erabilera (txikizkako merkataritza, ostalaritza, janari-dendak…).

— Osasun-laguntzako erabilera.

— Erlijio-erabilera.

— Irakaskuntzako erabilera.

— Kultura-erabilera.

— Gizarte eta aisialdiko erabilera.

— Kirol-erabilera.

— Lantegi eta industria txikiko erabilera.

— Administrazioaren zerbitzu publikoko erabilera.

— Aparkaleku-erabilera.

— Trenbide-erabilera.

— Igogailu-erabilera.

— Trasteleku-erabilera. (19).

2. Eraikuntzarik gabeko erabilerak:

— Eraikuntzarik gabeko erabilerak.

— Aparkatze-eremuko erabilera.

— Bide-erabilera.

— Berdegune eta espazio libre publikoko erabilera.

— Sarbide publikoko erabilera.

— Sarbide pribatuko espazio libreko erabilera.

**17. artikulua.—*Hiri-ekipamenduko erabilera (ikus 1. eranskina)***

1. Jabetza publikoko erabileren kategorian edo jabetza edo funtzio komunitarioko erabileren kategorian egonik, hurrengo zuzkiduretako batean hiri-ekipamenduko zerbitzu komunitario bat ematen duten erabilerak, titulartasun pribatuko merkataritza berariaz baztertuta:

— Administrazioaren zerbitzu publikoak.

— Kultura.

— Erlijioa.

— Irakaskuntza.

— Gizartea eta aisialdia.

— Igogailu-erabilera.

— Kirola.

— Osasun-laguntza.

— Mistoa.

— Igogailuak.

— Trenbidea.

— Aparkalekua.

— Administrazioa.

2. Hiri-ekipamenduko erabilera eraikuntzako etxe-uharte guztietarako baimentzen da, baldin eta planaren proposamenari eta, lehendik badagoen batean ezartzen direnean, eraikuntzaren ezaugarriei egokitzen bazaie.

3. Irakaskuntzako eta aparkaleku publikoko ekipamenduetan izan ezik, horietarako ez baita inongo erabilera-aldaketarik onartzen, planean aurreikusitako gainerako tokiko ekipamendu komunitarioei 1. paragrafoko zerrendan ez dagoen beste erabilera bat eman ahalko zaie.

— Uso de taller y pequeña industria.

— Uso de espacio libre. Comprende el que se desarrolla sobre suelos de propiedad privada y corresponden a actividades no sustentadas en edificación.

**Artículo 16.—*Usos sustentados en la edificación o instalación y usos libres de edificación***

1. Los usos que podrán ubicarse en edificación o instalación, serán los siguientes:

— Uso residencial (vivienda, apartahotel, …).

— Uso hotelero.

— Uso comercial y de servicios terciarios (comercio al por menor, hostelería, alimentación…).

— Uso asistencial-sanitario.

— Uso religioso.

— Uso docente.

— Uso cultural.

— Uso recreativo-social.

— Uso deportivo.

— Uso de taller y pequeña industria.

— Usos de servicios públicos de la administración.

— Uso de aparcamiento.

— Uso ferroviario.

— Uso de ascensores.

— Uso de trasteros. (19).

2. Usos libres de edificación:

— Usos libres de edificación.

— Uso de estacionamiento.

— Uso viario.

— Uso de zonas verdes y espacios libres públicos.

— Uso de acceso público.

— Uso de espacio libre de acceso privado.

**Artículo 17.—*Uso de equipamiento urbano (ver Anexo 1)***

1. Comprende aquellos usos que perteneciendo a la categoría de usos de propiedad pública o usos de propiedad o función comunitaria, prestan un servicio comunitario de equipamiento de la ciudad en alguna de las siguientes dotaciones; con expresa exclusión del comercio de titularidad privada:

— Servicios Públicos de la Administración.

— Cultural.

— Religioso.

— Docente.

— Recreativo Social.

— Uso de ascensores.

— Deportivo.

— Asistencial sanitario.

— Mixto.

— Ascensores.

— Ferroviario.

— Aparcamiento.

— Administrativo.

2. El uso de equipamiento urbano se autoriza para todas las manzanas edificatorias, en tanto se ajusten a la propuesta del Plan y a las características de la edificación cuando se implanten en una existente.

3. Salvo en el caso de los equipamientos docentes y aparcamiento público, para los que no se admite ningún cambio de uso, los restantes equipamientos comunitarios de carácter local previstos por el Plan podrán ser destinados a otro uso de los relacionados en el apartado 1.

cve: BAO-BOB-2016a137

**18. artikulua.—*Trenbide erabilera***

Erabilera honen kalifikazioak egungo zuzkidurak, dokumentazio grafikoan adierazitakoak, barne hartuko ditu, zehaztapen hauekin:

Eraikuntzarik gabeko eremuetan, trenbideen trazatuek halakoak okupatzen dituztenean, arreta berezia jarriko da trenbide horien tratamenduan, BIAren izaera monumental eta historikoarekin behar bezalako erlazioa izan dezaten; horrela, ahal den neurrian, zuhaitz-kanaletan sartuko dira trazatuok, espazio horiei egokitasun bisuala emateko. Izan ere, espazio horiek zaintzen ez direnean, sarritan, narriadura handiko eremuak izaten dira.

**19. artikulua.—*Berdeguneak***

1. 2. eranskinean jasotako berdegune, lorategi edo gune zolatuen izaera ezingo da inola ere aldatu, baina haien gainean behin-behineko erabilerak baimendu ahalko dira, instalazio higigarrietan, hala nola, feriak, mahaitxoak, terrazak, eta abar, edo hiri-altzariei dagozkienak, hala nola, kioskoak, komunak, iturriak, eta abar.

2. Berdeguneen sestraren azpitik, artikulu honetako 3. paragrafoan ezarritakoa izan ezik, hiri-azpiegiturei, lurpeko garraioari, oinezkoen basabideei eta hormen behin-behineko ainguraketari dagozkien erabilerak baino ez dira baimentzen. (30).

3. Aparkaleku publikoko erabilera eta irakaskuntza-ekipamendurako erabilera baimentzen dira 18. BG berdegunearen sestraren azpiko kokagunean. (30).

**20. artikulua.—*Espazio libreak eta bide-espazioak***

1. 2. eranskinean adierazitako espazio libreetan, berdeguneetarako onartutako erabilerak baimentzen dira (19.1 artikulua).

2. Espazio libreen sestraren azpian, berdeguneetarako 19.2 artikuluan jasotakoez gain, aparkaleku publikoko erabilera –jabetza publikokoa zein administrazio-emakidako araubidekoa– eta aparkaleku pribatuko erabilera baimentzen dira. Aparkaleku pribatuen gaineko espazio libreak titulartasun pribatuari eutsiko diote, erabilera publikokoak izan arren.

3. «Behartsuen Senidetxoak» parkean, zinema-ekipamendua baimenduko da sestra azpian, administrazio-emakida bidez, emakidako aparkalekuen antzeko eran. (18).

4. 509.01-Behartsuen Senidetxoak EUko 2.3 bizitegi-lurzatian dagoen titulartasun pribatuko aparkalekuaren gaineko 18. Espazio Librean, irisgarritasuna eta akaberak 18. Berdegunearekiko jarraitutasunez gauzatuko dira, berdegune horretarako sarbide egokiak bermatzeko. (30).

5. Irakaskuntza-ekipamendurako erabilera baimentzen da sestra azpian 18. EL espazio librean (30).

6. Bide-espazioei dagokienez, zirkulazio-erabilera eta parking-erabilera baimentzen dira haien gainean, trafikoko udal-zerbitzuek ezarritako baldintzetan. Oinezkoen zirkulazioko eremuetan, aldi baterako erabilerak baimendu ahalko dira, berdeguneetan baimendutakoen antzekoak. Sestra azpian, 2. paragrafoan jasotako erabilerak baimentzen dira.

**21. artikulua.—*Bizitegi-erabilera***

1. Bizitegi-erabilera erabilera pribatizatuak har ditzaketen etxeuharte guztietan dago baimenduta, hau da, hiri-ekipamenduko kategorian ez dauden edo berdeguneak, espazio libreak edo bide-espazioak ez direnenetan.

2. Modalitate hauek barne hartzen ditu:

a) Etxebizitza-erabilera, hau da, familia-unitateei era iraunkorrean edo aldi baterako bizitokia ematen dieten jarduerak; eta

b) Etxebizitzaren pareko bizitoki-erabilera, baina sektore-arauketa berezi bati lotua, hala nola, hotel-apartamentuak, (…), eta abar.

**Artículo 18.—*Uso ferroviario***

La calificación de este uso que abarcará las dotaciones existentes en la actualidad y señaladas en la documentación gráfica con las siguientes precisiones:

En las zonas libres de edificación pero ocupadas por los trazados de las vías se tendrá un especial cuidado en el tratamiento de las mismas al objeto de que guarden la debida relación con su carácter monumental e histórico del A.R.I., procurando, en la medida de lo posible enmarcar dichos trazados dentro de canales de arbolado que ofrezcan una corrección visual a estos espacios que, cuando se descuidan suelen ser un área de frecuente e importante degradación.

**Artículo 19.—*Zonas verdes***

1. Las zonas verdes, ajardinadas o pavimentadas recogidas en el Anexo 2, no podrán cambiar en ningún caso su carácter, pero sí se podrán autorizar sobre las mismas usos provisionales sobre instalaciones muebles, tales como ferias, veladores, terrazas, etc., o todos aquéllos correspondientes al amueblamiento urbano, como quioscos, aseos, fuentes etc.

2. Bajo rasante de zonas verdes, salvo lo previsto en el apartado 3 del presente artículo, sólo se autorizan los usos de servicios relativos a infraestructuras ciudadanas, transporte subterráneo, pasos de peatones y anclajes provisionales de muros. (30).

3. Se permiten los usos de aparcamiento público y equipamiento docente en situación bajo rasante en la zona verde Z.V.18. (30).

**Artículo 20.—*Espacios libres y viarios***

1. Sobre los espacios libres señalados en el Anexo 2, se autorizan los usos permitidos para las zonas verdes (artículo 19.1).

2. Bajo rasante de los espacios libres se autorizan además de los usos señalados en el artículo 19.2 para las zonas verdes, los de aparcamiento de propiedad pública o en régimen de concesión administrativa y aparcamiento privado. Los espacios libres sobre aparcamientos privados mantendrán la titularidad privada a pesar de su uso público.

3. En el Parque de «Hermanitas de los Pobres» se permitirá un equipamiento de cines bajo rasante, por concesión administrativa, similar a los aparcamientos en concesión. (18).

4. La accesibilidad y acabados del Espacio Libre número 18 situado sobre el aparcamiento de titularidad privada de la parcela residencial 2.3 de la U.E. 509.01-Hermanitas de los Pobres, se realizarán en continuidad con la Zona Verde número 18 de titularidad pública para garantizar los accesos adecuados a dicha zona verde. (30).

5. Se permite el uso de equipamiento docente en situación bajo rasante en el espacio libre E.L. 18. (30).

6. En cuanto a los espacios viarios, los usos autorizados sobre los mismos serán los de circulación y aparcamiento en las condiciones que determinen los servicios municipales de tráfico. En las zonas de circulación peatonal se podrán autorizar usos temporales, similares a los de las zonas verdes. Bajo rasante, se permiten los usos previstos en el apartado 2.

**Artículo 21.—*Uso residencial***

1. El uso residencial, está autorizado para todas las manzanas que sean susceptibles de tener usos privatizados, es decir, que no pertenezcan a la categoría de equipamiento urbano, o sean espacios verdes, libres o viarios.

2. Incluye las siguientes modalidades:

a) El uso de vivienda, que comprende las actividades que proporcionan alojamiento permanente o temporal a unidades familiares; y

b) el uso de alojamiento equiparable a la vivienda, pero sometido a una regulación sectorial específica, como los apartahoteles, (…), etc.

cve: BAO-BOB-2016a137

3. Erabilera horiek ezingo dira gauzatu sotoetan edo erdisotoetan, eta erabilera horretarako erabiltzekoak diren gelek kanpoko lur edo sestratik 0,45 cm-ko garaieran geratu beharko dute. Birgaitzeetan, Birgaikuntzari buruzko Dekretuko III. eranskinean jasotako baldintzak beteko dira, beheko solairuetan etxebizitzak egoteari buruzkoak, hain zuzen.

4. Teilatupeetan, etxebizitza-erabilera baimenduta egongo da halakoak jatorriz xede horretarako esleiturik daudenean edo —beheko hurbileneko solairuarekin lotura dutelarik, bai eta sarbidea ere solairu horretatik— fatxadaren planoan aireztatzeko eta argiztatzeko baoak dauzkatenean, edo, bestela, fatxadatik atzeraemandako plano bertikal batean.

5. Etxebizitzen azalerari dagokionez, arau hauek beteko ditu:

a) Planeko 1. eta 2. sektoreetan, etxebizitzaren azalera erabilgarria ez da izango 55 $m^2$ baino gutxiago, lurzatiaren tamainak hori ahalbidetzen ez duen kasuetan salbu, eta Plan Nagusiko hirigintzako arauetan zehazturiko programa eta baldintzak beteko ditu, gelen kopuruaren eta azaleraren aldetik, argiztatzeko eta aireztatzeko baoen aldetik, bigarren argien aldetik, atarien zein igogailuen aldetik.

b) BIAren gainerakoan, eta babes ofizialeko etxebizitzetan izan ezik, haiek berariazko araudia beteko baitute, etxebizitzaren azalera erabilgarria ez da izango 75 $m^2$ baino gutxiago, lurzatiaren tamainak hori ahalbidetzen ez duen kasuetan salbu, eta Plan Nagusiko hirigintzako arauetan zehazturiko programa eta baldintzak bete beharko ditu. 75 $m^2$ baino gehiagoko azalera duten etxebizitzen kasuan, etxebizitza horiek banatzea baimendu ahalko da, gainerako baldintzak eta, bereziki, higiene eta osasun arlokoak betetzeaz gain, geratzen den gutxieneko etxebizitza-frakzioaren azalera erabilgarria 55 $m^2$-tik gorakoa denean.

c) Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzaren 189/90 Dekretuaren eranskinean zehaztutako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituzten etxebizitzak, dekretu horren ondorioetarako, etxebizitzatzat joko dira, nahiz eta goian ezarritako parametroekin bat ez etorri.

6. Era berean, edozein erakunde publikok sustaturiko edo itunduriko etxebizitza babestu eta sozialen eraikuntzan, indarrean den autonomia-erkidegoko araudia gailenduko da, araudi horrek goian ezarritako parametroekin gatazka argia daukanean.

7. Dagokion udal-ordenantzan egokitzat adierazitako eraikinetako beheko solairuetan etxebizitzak jarri ahalko dira, eta halakoak babes publikoko etxebizitzak izango dira, udal-etxebizitza tasatuaren kategoriarekin, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearekin bat etorriz. (21). Etxebizitzon arauketak aipatutako ordenantzan ezarritakoari jarraituko dio, aurreko paragrafoak aplikatu gabe.

**22. artikulua.—*Ostatu-erabilera***

1. Ostatu-erabileran sartzen dira aldi baterako ostatu-zerbitzua eta otordu-zerbitzua ematen dituzten jarduerak, mantenu osoko erregimenari lotuta zein lotu gabe egonik ere, edo jantoki-zerbitzurik gabe ostatu-zerbitzua bakarrik ematen dituztenak, jendeari irekitako eraikin edo lokaletan, halako establezimenduei dagokien legediaren baldintzak betez; jarduera horiek, hirugarren adinekoen egoitzen kasuan salbu, beren berariazko araudiari jarraituko diote.

2. Erabilera horretarako eraikinetan hari lotutako jarduera osagarriak onartuko dira, hala nola, erabilera propio edo nagusiaren erabilera zerbitzariak, baldin eta erabilera horiek erabilera nagusiaren azalera eraikiaren %40 baino gehiago hartzen ez badute.

3. Erabilera bat ostatu-erabileratzat hartzeko, haren izaera justifikatu beharko da, ostatu-establezimenduaren baimena eta behinbehineko sailkapena aurkeztuta. Horren ondorioetarako, hotel-apartamentua ostatu-erabileratik kanpo geratzen da, etxebizitza-erabilerarekin parekatzen baita. Hortaz, erabilera horren barruan kategoria hauek barne hartzen dira:

— 1. kategoria. Hotelak eta motelak.

— 2. kategoria. Hostalak, ostatu-etxeak eta apopilo-etxeak.

— 3. kategoria. Fondak.

— 4. kategoria. Hotel-egoitzak eta hostal-egoitzak.

3. No podrán desarrollarse en situaciones de sótano o semisótano, debiendo quedar el pavimento de las piezas destinadas a este uso a 0,45 cm de altura con respecto al terreno o rasante exterior. En los supuestos de rehabilitación se cumplirán las condiciones contenidas en el anexo III del Decreto de Rehabilitación relativas a la existencia de viviendas en planta baja.

4. En los espacios bajo cubierta se autoriza el uso de vivienda, cuando los mismos estuvieren señalados de origen para tal fin, o estando vinculados a la planta inmediatamente inferior, y en acceso a través de ésta, dispusieren de huecos de ventilación e iluminación en el plano de fachada, o, en su caso, en un plano vertical retranqueado de ésta.

5. En cuanto a la superficie de las viviendas, se ajustará a las siguientes reglas:

a) En los sectores 1 y 2 del Plan la vivienda tendrá superficie útil no inferior a 55 $m^2$, salvo aquellos casos en los que el tamaño de la parcela no lo admita, y cumplirá el programa y condiciones definidas en las Normas Urbanísticas del Plan General, en cuanto a número y superficie de las habitaciones, huecos de luz y ventilación, segundas luces, portales y ascensores.

b) En el resto del A.R.I., y salvo para las Viviendas de Protección Oficial, que se ajustarán a su normativa específica, la vivienda tendrá una superficie útil no inferior a 75 $m^2$, salvo aquellos casos en que la superficie de la parcela no lo permita, debiendo cumplir las condiciones y programa fijados en las Normas Urbanísticas del Plan General. En aquellos supuestos de viviendas con superficie superior a 75 $m^2$, podrá autorizarse la división de las mismas cuando, además del cumplimiento del resto de condiciones y en especial las higiénico-sanitarias, la fracción restante mínima de vivienda tenga una superficie útil no inferior a 55 $m^2$.

c) No obstante las viviendas que cumplan las condiciones mínimas de habitabilidad señaladas en el Anexo del 189/90 del Gobierno Vasco tendrán, a los efectos del mismo, la consideración de vivienda, aun cuando no se ajustaren a los parámetros señalados con anterioridad.

6. Igualmente, prevalecerá, en los supuestos de edificación de viviendas protegidas y sociales promovidas o concertadas por cualquier organismo público, la normativa autonómica vigente cuando ésta entre en conflicto abierto con los parámetros antes señalados.

7. Se permite la implantación de viviendas en las plantas bajas de los edificios señalados como aptos en la Ordenanza Local correspondiente, que tendrán el carácter de vivienda de protección pública con la categoría de vivienda tasada municipal conforme a la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco. (21). Su regulación se ajustará a lo dispuesto en dicha Ordenanza, sin que sean de aplicación los apartados anteriores.

**Artículo 22.—*Uso hotelero***

1. El uso hotelero comprende las actividades que facilitan el servicio de alojamiento temporal con el de comidas, con sujeción o no al régimen de pensión completa, o únicamente el de alojamiento sin servicio de comedor, en edificios o locales abiertos al público, con sujeción a las condiciones de la Legislación propia de estos establecimientos y con excepción de las residencias de la tercera edad, que se regirán por la normativa específica de las mismas.

2. En los edificios destinados a este uso, se admitirán actividades complementarias afines como usos servidores del uso propio o principal, siempre que estos usos no superen el 40% de la superficie construida del uso principal.

